

Hausnarketa estrategikoa 2020-2023

2020ko azaroa



Hizkuntza Berdintasuneko
Zuzendaritza Nagusia

Edukia

1 - Sarrera.....	3
2 - Helburua.....	5
3 - Erreferentziako dokumentuak.....	6
Araudia	6
Plangintza	6
Bestelako dokumentuak.....	6
4 - Metodologia: hausnarketa prozesua	7
Xedea.....	7
Ikuspegia.....	7
Balioak	7
Euskarri eta datu osagarriak.....	8
5 – Hausnarketaren edukiak: abiapuntua, norabidea eta erronkak	9
Abiapuntua: gizartearen indar aldakorrak	9
Zein norabide hartu behar genuke?	10
Emakumeen parte hartzea	11
Mugarri berrien bila	12
6 – Lerro estrategikoak, jarduera ildoak eta ekintzak	14
GFAn helburuarekin lotutako lerro estrategikoak	14
LE1. Euskara zerbitzu, lan eta komunikazio hizkuntza gisa baliatu GFAn	15
LE2. Elkarlana gauzatu udalekin, eragile sozialekin eta hizkuntzaren industriarekin, politikak lerrokatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko	17
LE3. Berrikuntzara xedatutako baliabideak indartu	19
7 – Jarraipena eta ebaluazioa.....	20



1 - Sarrera

Oinarri sendo batean errotzen da Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 2020-2023 hausnarketa estrategiko hau. Ez gara hutsetik hasten, baizik hiru zutaberen gainean sortu nahi —eta ahal— izan dugu gure plangintza estrategikoa:

1. Batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruan 2018-2022 aldirako euskararen erabilera normalizatzeko plana.
2. Bigarrenik, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 2015-2019 plan estrategikoaren gaineko ebaluazioa.
3. Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Plan Estrategikoa.

Zutabe nagusi horiekin batera, aurreko legealdian bi eginkizun nagusi burutu genituen, hausnarketa estrategikoari loturik: alde batetik, identifikatuta geratu ziren gure hizkuntza politikaren ahuleziak, indarguneak, mehatxuak eta aukerak; eta, bestetik, gure langintza baldintzatzen duten zenbait faktore orokorren analisisa landu genuen, kudeaketa aurreratuaren ereduari loturik: teknologia, ekonomia, politika eta legeak, gizartea eta pertsonak.

Lurraldeko eragileen ikuspegia jasotzeko ahaleginari dagokionez, gogoan izan behar dugu zenbait helburu adostu zirela, Foru Aldundiaren hizkuntza politikaren orientabide orokorraren gainean, 2016-2018 bitartean euskararen biziberritzearen aldeko sektore sozial eta ekonomikoarekin egindako partaidetza prozesu sakon eta zabal baten bidez. Era berean, barne partaidetza prozesuak garatu genituen, bai Foru Aldundian —ez, zehazki, gure hausnarketa estrategikoaren barruan, baizik 2018-2022 aldirako euskararen erabilera normalizatzeko plana egiterakoan—, bai Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren barnean.

Hastapenean aitortu dugun bezala, gure hausnarketa estrategikoaren prozesu honetan ahalegin berezia egin dugu ekintzak eta atazak Gipuzkoako Foru Aldundiaren orientabide estrategiko orokorrekiko lerrotatzen. Uste dugu politika publikoak koherentzia baten barruan eratu eta garatu behar direla, sektore bakoitzak berezkoak dituen ezaugarrietara egokituta, jakina, baina erreferentzia marko bakar baten barruan, helburu orokorrei dagokienez.

Era berean, oso aintzat hartu nahi izan ditugu Foru Aldundiaren politika publikoak itxuratzeko nahitaezkoak diren zehar lerroak ere, bereziki genero berdintasuna, baina baita ere partaidetza, bizikidetzak edo inklusibitatea.

Hori horrela, hizkuntza berdintasunaren ikuspegia eta, orobat, Bikain kudeaketa eredu hobeki txertatzea lortu dugunez Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa estrategikoaren tresna nagusietan —batik bat emaitzetara bideratutako aurrekontuaren garapenean eta beraren jarraipen tresnetan—, ikuspegi hori sakontasunez lotzeko arintasun behar bestekoa txertatu nahi dugu antolamendu eredu berrian (departamentu arteko eta departamentu barruko batzorde bateratua zehar politika guztietarako).

Esan daiteke Gipuzkoako Foru Aldundiaren lidergoa indartu egin dela gure lurraldearen hizkuntza berdintasuna lantzeko politika publikoen esparruan; oinarri horretatik abiatuta, etorkizunean lidergo posizio hori landu nahi dugu, arduraz eta erantzukizunez.



Horrenbestez, 2015-2019 legealdian hasitako bideari segituko diogu 2020-2023 agintaldi honetan, gipuzkoarrek bizitzaren eguneroko zereginetan euskaraz normal aritzeko aukerak berdintasun handiagoz izan ditzaten; eta, gainera, lankidetzaz bultzatuz erakunde publikoen eta sozialen artean. Alde horretatik, borondate argia dugu Eusko Jaurlaritzak markatutako hizkuntza politikako ildo nagusiekin lerrokatuta jokatzeko —bai Jaurlaritzarekin bai gainerako foru aldundiekin ongi koordinaturik—, Gipuzkoako udalekin proiektu partekatuak lantzeko eta, halaber, Gipuzkoako gizarte eragileekin eta euskalgintzaren sektorearekin elkarlan estuan aritzeko. Era berean, ezagutza eta esperientziak partekatzen jarraitu nahi dugu Nafarroako Foru Gobernuarekin, Euskal Hirigune Elkargoarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin.

Erakundearen barruan, datozen urteetan belaunaldi aldaketa handi bat gertatuko da, ezinbestean. Espero dugu euskaldun ugari sartuko dela Foru Aldundiaren lan esparruan, eta, horren ondorioz, aukera berriak zabalduko direla euskararen erabilera areagotzeko. Orobat, belaunaldi aldaketa lan munduan gertatuko den fenomeno nagusia izango denez, bide berriak urratzeko eginkizuna izango dugu, eremu horretan euskaraz normal aritzeko, lurraldean bizi dugun hizkuntza aniztasuna ahaztu gabe, noski, hizkuntza aniztasunari duen balioa emanez, euskarari ere balioa ematen diogulako.



2 - Helburua

Hausnarketa honen bitartez ariketa bat egin nahi izan du Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak: irudikatzea lau urte barru gure burua nola eta non ikusi nahi genukeen.

Ez dugu lehenengo aldiz egiten gisa horretako ariketa bat: orain dela hamabi bat urte, 2008-2011 agintaldian, ekin genioen gure lehen hausnarketa estrategikoari; laugarren urratsa da beraz, orain egin duguna.

Helburu labur eta bakar batean biltzearen, hausnarketa honek lortu nahi du, alde batetik, hiztunen arteko berdintasun giroa indartzea Gipuzkoako gizartean; eta, bestetik, Foru Aldundiaren departamentuetan eta langileen artean ahalduntze prozesua sendotzea, euskara izan dadin Aldundiaren zerbitzu hizkuntza eraginkorra eta ohiko lan hizkuntza.

Izan ere, gogoan izan behar dugu Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Plan Estrategikoak 4. helburutzat ezartzen duela «euskara lehendabiziko aukera gisa erabil dadin sustatzea, dela GFAn, dela lurraldeko gainerako eragileen artean, aukera linguistikoak parekatzeko eta hiztunen arteko berdintasuna sustatzeko». Helmuga bat ere jartzen du: euskararen erabilera indizea Gipuzkoan % 32,5era iristea 2023an.

Testuinguru horretan egin behar dugu lan, hau da, Foru Aldundiaren estrategia orokorrekin ongi lerrokatuta, gure bitartekoei eraginkortasun handiena bilatuta, eta ezarritako helburuetara iristeko grinaz.



3 - Erreferentziazko dokumentuak

Araudia

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko langileek euskara ikastaroak egiteko baldintzen arauak.

Plangintza

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoa 2020-2023.
- Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko irizpide orokorra eta plan nagusia. Seigarren Plangintzaldia.
- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruetan 2018-2022 aldirako.
- Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren etikaren eta kudeaketa onaren kodea.

Bestelako dokumentuak

- Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 2015-2019ko Plan Estrategikoaren ebaluazioa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren barneko partaidetza prozesua.
- Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren barneko partaidetza prozesua.
- Euskalgintzaren Berrikuntza Palankak.
- Gipuzkoako euskara teknikarien mintegia 2019.
- Alderdi politikoen arteko hausnarketa estrategikoa hizkuntza-politikaren inguruan 2019.
- Badalab euskararen berrikuntzarako laborategi kooperatiboa.



4 - Metodologia: hausnarketa prozesua

Xedea

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren xedea da hiztunen arteko berdintasuna lortzea eta Aldundia nahiz gipuzkoar gizartea ahalduntzea, elkarrekin aurrera egin dezaten bide horretan, ingurumen gero eta eleaniztunago batean, euskarari berrikuntzaren garabidea eskainita.

Xede hori lortzeko, alde batetik euskararen sustapenerako eta normalizaziorako politikak eta planak antolatu eta gauzatu ditugu, Aldundiari begira eta Gipuzkoako gizarteari begira; eta, bestetik, hizkuntza zerbitzuak eskaintzen dizkiegu Aldundiko departamentuei.

Ikuspegia

Gipuzkoako lurralde historikoaren eremuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak lidergoa hartuta, baliabideak jarri eta bermeak eskaini nahi dizkiogu gizarteari, hiztunen artean aukera berdintasuna egon dadin. Hurbileko euskaltasun erakargarri eta indartsu bat osatu nahi dugu, gaztelaniaren erabilera zabal eta nonahikoarekin orekatzeko.

Euskaraz bizitzeko hautua egiten dutenen babesle izan nahi dugu, bizitzaren eremu guztietan egin ahal izan dezaten, Aldunditik hasita.

Eraldatze sozialaren prozesu horretan, lidergo berritzaile bat gauzatu nahi dugu, bizikidetzara, eleaniztasuna eta erantzukizun soziala aintzat hartuta.

Euskararen erabilera sozialaren aldeko eragile sozial eta ekonomikoek solaskide gisa ikustea nahi dugu, elkarlaneko gobernantza eredu batean oinarri hartuta.

Zeregin horietan saiatuko gara Eusko Jaurlaritzaren gidaritza aintzat hartuta eta Gipuzkoako udalekiko lankidetzara sustatuta.

Balioak

Egoera eleaniztun argi bat duen lurraldea da Gipuzkoa. Hizkuntzen arteko bizikidetzak hiru balio nagusitan hartu behar du oinarria:

- **Askatasuna:** esparru ez arautuetan, pertsonak libre izan behar du bere hizkuntza hautua egiteko. Horrek eskatzen du hautuen arteko berdintasuna. Bi pertsonen arteko komunikazioan, bakoitzak berdintasunean gauzatu ahal izango du bere hautua besteak gutxienez ulertzen badu; hau da, hizkuntza simetria posible bada.
- **Berdintasuna:** hiztunen hautuen arteko berdintasuna behar da, benetan libre izatea nahi badugu. Gaztelaniak munduan 500 milioi hiztun ditu, eta Gipuzkoan nahitaez jakin behar den hizkuntza bakarra da. Beraz, presentzia handia du, eta inertzia bere alde. Hori orekatzeko, eta aukera berdintasuna posible izan dadin, euskarari eman behar zaizkio esparru eta funtzio berezkoak, gizartearen aurrean pisua eta prestigioa izango dutenak.



- **Justizia:** hiltunen arteko aukera berdintasuna, finean, justizia kontu bat da. Ez da ahaztu behar azken 80 urteetan atzera egiten badugu, lehen 40etan egon dela euskara debekatuta, eta baliabide asko jarri izan direla bere erabilera murrizteko. Beraz, justua da orain politika berdintzaileak bultzatzea eta baliabideak jartzea euskara berreskuratzeko.

Balio hauen orientabide orokorra izango da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren erakundearen zuzentasun sistema; horren garapenean onartutako Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen jokabide eta jardunbide egokien kodea; eta Gipuzkoako foru enplegu publikoaren etikaren eta kudeaketa onaren kodea.

Euskarri eta datu osagarriak

Esandako guztiaz gainera, hausnarketa estrategiko hau moldatzeko prozesuaren aitzinean, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak gogoan izan ditu beste euskarri batzuk:

- AMIA azterketa: hausnarketa estrategikoak baliagarri izan behar du gure indarguneak sendotzeko, ahuleziak txikiagotzeko, inguruneko aukerez baliatzeko eta mehatxuak deuseztatu edo murrizteko.
- Partaidetza prozesuen emaitzak: euskararen biziberritzearen aldeko sektore sozial eta ekonomikoarekin 2015-2019 legegaldian zehar garatutako partaidetza prozesuen ekarpen eta hausnarketa nagusiak aintzat hartu ditugu.

Bestalde, planaren moldaeraren lehen zirriborroa amaitu ostean, Euskararen Foroko kideen kontrastea eta ekarpenak jaso genituen, 2020ko uztailaren 2an egindako saioan.



5 – Hausnarketaren edukiak: abiapuntua, norabidea eta erronkak

Dokumentu honek jasotzen duen hausnarketa estrategikoa ariketa soil baten gisara ulertzen dugu Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusian, hitz hanpatuen gainetik. Nola irudikatzen dugu gure burua hemendik lau urte barru? Nolakoak nahi genuke izan lau urteren buruan? Zein bide ibili behar dugu, orain irudikatzen dugun helmuga horretara iristeko?

Aitortu beharra daukagu ez garela hutsetik hasten ariketa hori behar den sakontasunez eta zorrotzasunez egiteko: 2008an gisa honetako gure lehen hausnarketa mamitu genuenez geroztik, esan genezake gure lantaldea trebatzen eta egokitzen joan dela, eguneroko lanaren eta zereginen gurpilak –batzuetan, egia da, gurpil zoroak– ez ditzan guztiz lausotu gure zuzendaritzaren xedea, eginkizuna eta orientabidea.

Abiapuntua: gizartearen indar aldakorrak

Gure gizartea, mundua, asko aldatu dira urte hauetan, esparru askotan aldaketak bizkor ari dira gertatzen, jokabide sozialak goitik behera eraldatu eta baldintzatzeraino, batzuetan. Gizartearen aldakuntzen haria galdu nahi ez badugu, herri erakundeon politika publikoak etengabe birformulatu, egokitu eta eguneratzera behartuta gaude.

Jakina, jokabide sozialen erdigunean dago hizkuntzaren faktorea, harreman sozial guztien muinean baitago, modu batera zein bestera, hizkuntzaren bitartez sortzen den harremana. Teknologiaren garapenak erraztasun ikaragarria sortu duenean jendearen erlazioak bideratzeko, eta ikus-entzunezko bitartekoak gailentzen direnean sarean, apur bat pentsatzen badugu, ohartuko gara, guztiarekin, hizkuntza dagoela beti harreman ororen oinarrian.

Aurkia bezala ifrentzua du, euskara bezalako hizkuntza txikientzat, harreman sozialen ugaritze, bizkortze eta orokortze horrek: alde batetik begiratuta, aukera berriak sortzen ditu jakintza eta informazioa euskaraz modu errazean ekoizti eta hedatzeko; baina, bestetik, teknologiaren indarrez eskura dugun munduaren zati oso txiki bat mintzatzen da euskaraz. Gehiago ere esan daiteke: mundu analogikoan urte luzez euskaraz landutako gune eta espazioak zalantzakor bihurtzen dira maiz mundu teknologikoan, hizkuntzaren erabileraren aldetik begiratuta, batez ere bizitzaren alderdi garrantzitsuak teknologiaren erabileraren mende dituzten belaunaldi gazteentzat.

Gizartearen harreman sistema mugiarazten duten indar eragile askotarikoak, kontraesan eta desoreka guztiekin, inon baino argiago ageri dira lanaren munduan. Aurreko hamarkadatan hezkuntzaren mundua euskalduntzeko ipini ditugun berealdiko baliabideekin loturarik ez balego bezala, hezkuntza sistemaz kanpo ere euskararen jakintza unibertsalizatzeko erabili ditugun bitarteko ugariarekin loturarik ez balego bezala, gaur gaurkoz lanaren eremua nagusiki erdalduna dela esan genezake. Harreman sozialen funtsezko guneetako batean, hizkuntzaren berdintasunak ezinbesteko duen hanka bat, eta ez nolanahikoa, herren dugu.



Gure erakundearen barruti zehatzera etorrira, hausnarketa estrategikoaren esparru honetan bi eginkizun nagusi izan ditugu aurreko legegaldian: alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen euskararen erabilera normalizatzeko plana; eta, bestetik, euskararen sektore sozial eta ekonomikoaren partaidetza indartzeko prozesua.

Lehen gaiari dagokionez (euskararen erabilera normalizatzeko plana), datu nabarmendu beharrekoen artean, euskararen erabilera bermatzeko arauen betetze maila, zerbitzu hizkuntzari dagokionez, % 64,4koa da (% 53,5 zen plangintzaldiaren hasierako erreferentzia). Begien bistakoa da bilakaera ona izan duela datuak, baina ez genuke ahaztu behar urrun gelditzen dela, oraindik, euskara zerbitzu hizkuntza orokor eta unibertsala izatea Foru Aldundiaren eginkizun eta une orotan.

Euskararen arnasberritze sozialaren esparruko eragile sozial eta ekonomikoekin batera gauzatu dugun partaidetza prozesuan, berriz, lortu dugu emaitzak estekatzea Etorkizuna Eraikiz ekimenarekin, hau da, gure lurraldearen proiektu estrategikoaren bilgune den elementuarekin. Hortik aterako den emaitza, Badalab hizkuntza berrikuntzarako laborategiaren bitartez, ikustekoa den arren, oraingoz, esan genezake urrats sendoak egin ditugula partaidetza prozesuaren ondorioak hezurramitzeko, laborategiak hartu duen definizioari, hedadurari eta lankidetzari sistemari dagokionez.

Badugu lur bat, beraz, abiapuntu sendo bat, legegaldian zehar hizkuntza berdintasunaren aldeko politika indartu eta garatzeko.

Zein norabide hartu behar genuke?

Gizarte harreman konplexu, aldakor eta desorekatuen testuinguruan, hiztunen jokabideak baldintzatzeko edo mugatzeko ahalmena duten eragin indar ugari daude jokoan. Horietako asko herri erakundeen politika publikoen eraginpean egon daitezke, alde edo moldez, baina beste asko menderagaitzagoak dira, ez baitaude loturik baliabideen aurreikuspenarekin edo bitartekoan plangintzarekin, baizik merkatuak arautzen dituen faktoreekin edo, besterik gabe, hiztunen kontzientzia linguistikoaren araberako erabakimenekin.

Garrantzikoa da, beraz, gure lantegiaren joko zelaia ongi zehaztea. Zertara eman behar genituzke gure baliabideak eta indarrak, lehentasunez? Zertan izan gaitzke eragile eta zertan ez? Zer egon daiteke gure esku, eta zertarako behar genituzke, nahitaez, aliatuak?

Begien bistakoa izateagatik, *Pernandoren egia* batetik hasi behar genuke: gure erakundearen barne eta kanpo jardunean hizkuntza berdintasun handiagoko harremanak ezartzeko gai izan behar genuke, lehen-lehenik eta beste eginkizun guztien aurretik. Hori da gure hastapeneko xedea, ez genuke inoiz ahantzi behar, horrek arrazoitzen baitu gure izatea. Foru Aldundiaren zerbitzuak euskaraz modu unibertsal batean —herritar guztientzat, egoera edo baldintza guztietan, lurraldearen gunee orotan— bermatzea, erakundearen jardueretan gero eta gunee eta langile gehiagok euskara izatea lan hizkuntza, erakundearen harreman sarean eta komunikazio publikoan aurpegi euskaldun(ago) bat erakustea izan behar dira, funtsean, gure arretaren, ahaleginaren eta baliabideen ardura nagusia.



Euskararen erabilera gizartearen esparru guztietan bermatzeko ahalegina hartu behar dugu aintzat, bigarrenik. Helburu handia da hori, herri erakundeok soilik lortuko ez duguna, noski. Gizarte eragile askoren esku dago berdintasun handiagoko irizpideekin erabiltzea euskara, baina herri erakundeok argi izan behar dugu gure eginkizuna dela bitarteko egoki, malgu eta irudimentsuak jartzea eragileen esku, berdintasun printzipioak aplikatzea errazago izan dadin. Arlo honetan, bereziki zaindu behar genuke euskararen biziberritzearen aldeko sektore sozial eta ekonomikoa, ez bakarrik dirulaguntzak sistema egoki, adostu eta iraunkor batez emanda —hori ezinbestekoa dela aitortuta—, baizik solaskidetzat hartuta sektore hori, politika publikoak itxuratu eta mamitzeko garaian. Azken urtetan landu dugun bidean sakondu behar genuke.

Hirugarrenik, hizkuntza berdintasun handiago baten aldeko gure lana egiteko moduz pentsatu behar dugu, gauzak aurrera eramateko harreman ereduaz, kasu askotan ezinbestean behar ditugun aliatuez; gobernantza ereduaz, hitz batera. Mundu gero eta elkar lotuago eta irekiago batean, lankidetzat sistema iraunkorrak landu eta sakondu behar genituzke, bai beste herri erakundeekin, bai mota guztietako gizarte eragileekin.

Laugarrenik, euskal herritarren euskara gaitasunaren datuak aintzat hartuta, eta gure lurraldean arnagune geografikoek daukaten garrantzi demografiko zein sinbolikoa gogoan izanda, aitortu behar da Gipuzkoak aitzindari leku bat daukala euskararen biziberritzeko politika publikoen esparruan. Gipuzkoak probaleku izan behar luke, hizkuntza plangintzaren arloan esperimintatzeko guneak eta aukerak sortzeko gaitasuna izan behar luke, bide berrietan abiatzeko lehen geltokia izateko ardura hartu behar luke. Populazioaren artean euskararen ezagutza unibertsala —gutxienik, ulermen orokortu batera iristeko adinakoa— lortu eta dinamika sozialak hizkuntza berdintasun handiagoko giro batean murgildu badaitezke inon, Gipuzkoan izan behar da. Horrek, jakina, erantzukizun gehigarri bat eransten dio gure lanari.

Azkenik, baina ez garrantzi apalagoz, gure begirada ernatu behar genuke, politika publiko orotan bezala, funtsezkoak diren zeharkako gaiak aintzat hartzeko, bereziki gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna. Harreman sozialak guztiz eta erabat baldintzatzen dituen ikuspegi horretan *berdinzale* izatea erraza da, printzipio nagusiak edo helburu orokorrak aipatzen ditugunean, baina gauzak zailago gertatzen zaizkigu printzipio eta helburu horiek gure ekintza zehatzetan aplikatzeko garaian. Maila erretorikoan gelditzeko arriskutik benetan ihes egin nahi badugu, etengabe adi eta erne ibiltzeko beharkizuna ezarri behar genuke arlo honetan.

Emakumeen parte hartzea

Gure lan prozesu guztietan kontuan hartu beharko dugu nola sustatuko den emakumeen parte hartzea, egitura eta une guztietan, eta zer neurri hartuko dugun emakumeen parte hartze hori kalitatezkoa izan dadin. Horretarako, emakumeen parte hartzea eragozten edo zailtzen duten faktoreak aztertu behar ditugu, eta horiek gainditzeko neurriak proposatu. Besteak beste, arreta bereziki zaindu behar ditugu ordutegiak (lana, aisia eta familia uztargarriak izan daitezen) zein espazioak (emakumeak eroso egoteko lekuak eta pertsona guztientzako irisgarriak). Ahalegindu behar dugu gure lan prozesuak baliagarri izan daitezen emakumeak ahalduntzeko.

Gure lan prozesuetan egiten ditugun azterketa, analisi edo diagnostiko guztietan bereizita jaso behar ditugu sexuen araberako datuak, iritziak eta pertzepzioak, eta sexuaren arabera egin behar ditugu datuon irakurketak, faktore hori esanguratsu izan daitekeela susmoa dugun guztietan.



Era berean, aztertu behar dugu gure zerbitzuen erabilera desberdintasunik sortu ote daitekeen emakumeen eta gizonen artean, eta hala gertatuz gero, behar diren neurri zuzentzaileak ezarri behar ditugu.

Orobat, emakumeen eta gizonen rol eta estereotipo sexistak ahultzeko jokabidea izan behar dugu gure eginkizun guztietan. Bereziki gure komunikazio publikoan, hizkuntzaren erabilera eta irudiak hautatzerakoan, emakumeen partaidetza sustatzeko helburua aintzat hartu behar dugu.

Mugarri berrien bila

Hausnarketa honen bitartez eratu nahi dugun estrategiak, hurrengo atalean zehazki azalduko diren xede, ildo eta ekintza guztiekin batera, mugarri batzuk ezarri nahi ditu, gure langintza dinamizatzeko ezinbestekoak baitira erronkak begi ertzean izatea, egingarriak, bai, baina,aldi berean, gure ekimenaren soka tenkatzeko adinako indarra dutenak.

Datozen lau urteetan garatuko ditugun ekintzen bitartez, erronka hauei erantzun bat eman nahi genieke, besteak beste:

- **Euskara, lan hizkuntza** izatea nahi genuke Gipuzkoako Foru Aldundiaren atal eta gune nagusietan, horretarako aukera garbiak baititugu. Alde batetik, langileen prestakuntza indartuta iritsi gaitezke gaur baino maila handiagoetara, bai ahozko jardunetan (lan bileretan, bereziki), bai idatzizko jardunetan. Bestetik, itzulpen teknologiaren aurrerakuntza ikaragarria izaten ari da, batez ere adimen artifizialari eta konputazio neuronalari loturik; hor aukera berriak sortzen dira, hizkuntza prestakuntza sendoa duten teknikariek euskaraz lan egin dezaten, autonomia eta arintasun handiagoz. Azkenik, hizkuntza teknologiaren ahalmena baliatu nahi dugu, baita ere, Foru Aldundiaren benetako hizkuntza erabilera jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Langileen prestakuntzaren eta hizkuntza teknologien erabilera adimentsuaren binomioa hartu behar genuke arlo honetan egin nahi dugun jauziaren bultzatzaile.
- **Gipuzkoako toki hedabideen garapena** bermatzen jarraitu nahi dugu. Esparru honetan EAEko erakunde nagusien artean lortutako adostasuna oinarri indartsu bat izan daiteke, alde batetik, dirulaguntzak eta gainerako baliabide publikoak norabide bakar batean jartzea lortu duelako lehenengo aldiz; eta, bestetik, euskarazko hedabideei egonkortasun handiagoko egoera batean lan egiteko aukera eman dielako. Datozen urteetan, arlo honek behar duen berregituratzea zentzuz eta tentuz garatu nahi dugu, beste erakundeekin eta sektorearekin batera, hedabideen eraginkortasuna eta zabalkundea sendotzeko helburuaz.
- **Lan munduan** euskararen erabilera hutsala da, ez dago errealitate hori ezkutatzetik. Alabaina, «euskalgintzaren unibertsoan, eta barrurago dagoen unibertso politikoan, inoiz ez ditugu izan orain ditugun baldintzak, horrelako munta handiko prozesu batean gehienok norabide berean eragiteko» (Jon Sarasua, Udaltop 2020). Begien bistakoa da lan munduan euskararen erabilera hedatzeko prozesu konplexu eta garrantzitsu hori ezin duela Gipuzkoako Foru Aldundiak bakarrik aurrera eraman. Beste erakundeen eta era askotako eragileen partaidetza nahitaezkoa dela aitortuta ere, ahalegin bat egin nahi genuke lan munduaren lur hori lantzeko esperimentazioetan, Gipuzkoak duen zentralitatea baliatuz eta behar diren aliantzak josten hasita.



- **Gipuzkoako udalekin** batera josi dugun lankidetzaren sareak berebiziko balioa du guretzat, bereziki gure arnagune geografikoak babesteko elkarlanak (UEMA). Etengabeko ikaskuntza, esperimentazioa eta, askotan, berrikuntza sortzeko gaitasuna duen sare bat eratu dugula esan genezake. Gurasokeriak guztiz albo batera utzi nahi ditugu udaletako euskara teknikariekin lotzen gaituzten harreman estuetan, aski jabetzen baikara elkarrengandik eta elkarrekin ikasten dugula. Toki araubide berrian hizkuntza politikaren arloko eskumen eta eginkizun zehatz batzuk udalen esku izateko izendatu direlarik, Foru Aldundiaren eta udalen arteko harremana biziberritzeko saio bat egin nahi genuke, irudimena baliatuz eta bide berriak urratzeko ahalegina landuz.
- **Euskararen ulermen unibertsal** batera iristeko aukerak aztertu behar ditugu, beste herri erakundeekin eta gizarte eragileekin batera; Pello Jauregik (Abbadia sarian, 2020an) aipatzen zuen «noizko Gipuzkoa osorik belarriprest?». Bistan da esparru honetan Foru Aldundiak, eskumenik ez duenez, ezin duela jokabide zentral bat erreklamatu beretzat, baina, halarik ere, ez dugu eragile izateko aukera baztertu nahi.
- **Gazteak eta aisia**, mundu zabal, konplexu eta ertzaz betetako bat da, zalantza gabe, eskola orduz kanpoko jarduerak multzo handi bat barne hartzen duena; kirola, gizartea, kultura, arteak... Ikertzaile batzuen (Paula Kasares) proposamenak aintzat hartuta, «D ereduko aisia» sistema bat josten eta antolatzen lagundu nahi dugu, udalekin batera, behar den adostasun politiko eta instituzionala landuz behar izanez gero, Gipuzkoan 25 urtez azpikoentzat eskola orduz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezken.
- **Gazteak eta teknologia** bereizi ezinekoak dira, gero eta modu nabarmenagoan. Esan daiteke belaunaldi gazteen harreman sareak, irudikapenak eta bizipen sinbolikoen zati handi bat teknologien bitartez gertatzen direla. Ikuspegi horretatik begiratuta, teknologia ez da tresna huts bat, baizik gazteen arretaren erdigunea, kasu askotan. Datuek erakusten digutenez, hezkuntza sistemaren lanari esker euskaraz ongi dakiten gazteak beste hizkuntzetan ari izaten dira tresna teknologikoetan, gaztelaniaz batez ere, baita ingelesez ere, euskaraz baino gehiago. Mundu konplexua da hori, zalantza gabe, beti-bateko erantzunik onartzen ez duena. Alabaina, beste hizkuntza gutxituek esparru horretan egin dituzten entseguak aintzat hartuta, gazteentzat erreferentziazko eredu euskaldunak sortzen lagundu nahi genuke. Hizkuntza berrikuntzarako sortuak ditugun edo sortzeko bidean ditugun baliabideak erabili behar genituzke, besteak beste, langintza honetan.



6 – Lerro estrategikoak, jarduera ildoak eta ekintzak

GFaren helburuarekin lotutako lerro estrategikoak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Plan Estrategikoak 4. helburu hau ezartzen du:



euskara lehendabiziko aukera gisa erabil dadin sustatzea, dela GFAn, dela lurraldeko gainerako eragileen artean, aukera linguistikoak parekatzeko eta hiztunen arteko berdintasuna sustatzeko

Helmuga bat jartzen du, gainera, helburu estrategiko horrek 2023an lortu beharrekoa:



euskararen erabilera indizea Gipuzkoan % 32,5era iristea

Foru Aldundiak bere buruari ezartzen dion helburu orokor horri loturik, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren hausnarketa estrategikoak hiru lerro estrategiko izango ditu:

- 1 Euskara zerbitzu, lan eta komunikazio hizkuntza gisa baliatu Gipuzkoako Foru Aldundian**
- 2 Elkarlana gauzatu udalekin, eragile sozialekin eta hizkuntzaren industriarekin, politikak lerrokatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko**
- 3 Berrikuntzara xedatutako baliabideak indartu**

Lerro estrategiko hauek adierazten dute hurrengo lau urteetan egingo dugun lanaren norabidearen muina: ahaleginduko gara euskara izan dadin Foru Aldundiaren ohiko hizkuntza; lankidetzaren ikuspegi batekin jokatu dugu gure jarduera guztietan; eta berrikuntzaren bidea utzi gabe landu nahi dugu hizkuntzaren esparruko gure politika publikoa.

Hiru mailatan hedatu ditugu lerro estrategiko nagusi hauek, alde batetik, edukiak antolatzeko xedez; eta, bestetik, lan unitate zentzuzko eta neurrikoetan banatzeko:

- Jarduera ildoak: lerro estrategikoen norabidean landuko ditugun gaiak antolatzeko programa, atal edo esparruak dira; 10 dira, guztira.
- Ekintzak: ataza multzo bat biltzen duten jarduketak dira, jarduera ildo bakoitza xede jakin batean edukiz betetzen dutenak; 38 dira, guztira.
- Atazak: edukiak gauzatzeko landu, aplikatu eta burutuko ditugun eginkizun zehatzak dira; 321 dira, guztira.

Hurrengo taulatan erakusten dira lerro estrategiko bakoitzerako jarduera ildoak eta ekintzak; labor beharrez, atazak, berriz, ez dira bat-banaka formulatuta agertzen, zenbatuta baizik.



LE1. Euskara zerbitzu, lan eta komunikazio hizkuntza gisa baliatu GFAn

Lerro estrategiko honek hezuramaitzen du, zalantza gabe, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren jarduera. Esan daiteke horixe dela, muin-muinean, gure zuzendaritzaren berezko egitekoa eta eginbeharra.

Hiru norabidetan garatu nahi ditugu lerro honek biltzen dituen jarduera ildo, ekintza eta ataza guztiak:

- Lehenik, nahi dugu euskara zerbitzu hizkuntza unibertsala izatea Gipuzkoako Foru Aldundiaren bulego eta jarduera guztietan, zeinahi delarik ere zerbitzua ematen den egoera eta abagunea.
- Bigarrenik, nahi dugu euskara Foru Aldundiaren lan hizkuntza eraginkorra izatea, gaur egun euskarazko atalaren izaera aitortuta duten languneetatik abiatuta. Foru Aldundiak dituen indarguneetan oinarrituta, langileen euskara gaitasunari etekina ateratzeko garaia da.
- Hirugarrenik, nahi dugu erakundearen komunikazio publikoan euskara lehenesteko jokabidea landu, sakondu eta finkatzea. Izan ere, Foru Aldundiaren irudi publikoa ere garrantzizkoa da, hizkuntzaren erabilera gizartean errotzeko eta indartzeko bidean.

Hurrengo taulan laburtzen dira lerro estrategiko honetan landuko ditugun jarduera ildoak, ekintzak eta atazak.

#	jarduera ildoak	ekintzak	atazak
LE1.1	Euskararen erabilera normalizatzeko plana Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruan 2018-2022	Planaren aplikazio bitartekoak antolatu, prestatu eta hedatzea	15
		Zerbitzu hizkuntza: irudi korporatiboan eta herritarren zerbitzuan hizkuntza berdintasuna nabarmentzea	12
		Zerbitzu hizkuntza: arreta zuzena ematen duten langileen edo kontratatutako enpresen hizkuntza jokabideak arautzea	11
		Zerbitzu hizkuntza: GFaren eledunen jendaurreko ekitaldien hizkuntza jokabidea arautu eta adostea	6
		Lan hizkuntza: euskara lan hizkuntza gisa hedatzea GFaren zerbitzuetan	19
		Lan hizkuntza: itzulpen tresna neuronalaren aplikazioa aztertu eta gauzatzea	9
		Lan hizkuntza: kontratu publikoetan eta dirulaguntzetan hizkuntza irizpideak ezartzeko orientabideak ematea	12
		Foru sektore publikoaren normalizazio planak gainbegiratu eta gidatzea	7



#	jarduera ildoak	ekintzak	atazak
LE1.2	HBZNren kudeaketa aurreratua hobetzea eta indartzea	HBZNren politika eta estrategia indartzea	13
		Zerbitzua hobetu: gure itzulpen zerbitzua emateko tresnak finkatu, garatu eta hedatzea	20
		Zerbitzua hobetu: GFAko langileen hizkuntza prestakuntzarako programak eraginkortzea	12
		Zerbitzua hobetu: gizartean euskararen erabilera areagotzeko programen eraginkortasuna indartzea eta horien ebaluazioa partekatzea	3
		Zerbitzua hobetu: politika, zerbitzu zein tresnak hobetzeko eta neurtzeko datuak sistematizatu eta kudeatzea	3
		Pertsonen kudeaketa hobetu: lankideen gaitasunak lantzea	9
		Pertsonen kudeaketa hobetu: zuzendaritzaren lankideen eta lantaldeen arteko komunikazioa eta lankidetzat tresnak zorroztea	8
		Pertsonen kudeaketa: belaunaldi aldatetari aurre egitea	4
LE1.3	Hizkuntza berdintasunaren ikuspegiaz, zeharkakotasuna lantzea GFaren barruan	Hizkuntza berdintasunaren aldeko politikak eta irizpideak zabaltzea	21
		Komunikazioa eta partaidetza landu eta sendotzea	16
		Departamentuen zereginetan hizkuntza irizpidea txertatzea eta lantzea	16
LE1.4	Gipuzkoako arduradun politikoen ahalmentze linguistikoa lantzen jarraitzea	Lan ildo bat garatzea hautetsientzat, eta ekimen bateratuak antolatzea hautetsi eta teknikarientzat berdintasunaren diskurtsoa erakundean hedatzeko eta eledunen bidez gizartean	8
		Ahalduntze programa berezia prestatzea arduradun politikoen hizkuntza portaerek berdintasuna sustatu dezaten	10
guztira	4	21	234



LE2. Elkarlana gauzatu udalekin, eragile sozialekin eta hizkuntzaren industriarekin, politikak lerrokatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko

Uste dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak ardura eta erantzukizun berezia duela hizkuntza berdintasunaren aldeko politika publikoetan aitzindari izateko. Gure lurraldearen ezaugarri soziolinguistikoek, alde batetik, eta foru erakundearen ibilbideak, bestetik, oinarritzen dute uste hori.

Alabaina, begien bistakoa da Foru Aldundiak ezin duela aitzindaritze hori bakarrik gauzatu. Gu bakarrik ez gara gauza izango hizkuntza berdintasunaren aldeko politika publiko sendoak antolatzeko, eta politika horien araberrako adostasun sozial eraginkor, zabal eta eguneratu bat lantzeko. Gu bakarrik ez gara gauza izango eta, gainera, ez dugu nahi bakarrik egin.

Aitzitik, loturak sakondu nahi ditugu gainerako herri erakundeekin eta gure lurraldeko eragile sozialekin, xede bat begien bistatik galdu gabe: herritarren hizkuntza eskubideak —euskaraz bizitzeko aukerak— bermatzea.

Lau norabidetan garatu nahi ditugu lerro honek biltzen dituen jarduera ildo, ekintza eta ataza guztiak:

- Lehenik, nahi dugu gobernantza eredu berri bat gauzatu, Foru Aldundiaren estrategia orokorrak aldarrikatzen duen lankidetzazko gobernantza eredu.
- Bigarrenik, Gipuzkoako udalekiko lankidetzak sakondu nahi dugu, maila instituzionalean bezala maila teknikoan, udalak baitira herritarren gertu diren erakundeak.
- Hirugarrenik, erakundeen arteko adostasuna —bereziki, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politika orokorraren esparruan— bilatu nahi dugu hizkuntza berdintasunaren aldeko politika publikoak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzerakoan.
- Azkenik, nahi genuke euskararen biziberritzearen aldeko sektore sozial eta ekonomikoaren lankidetzak babestu, sakondu eta garatu. Azken hamarkadan aurrerapauso sendoak egin ditugula aintzat hartuta, bide hori indartzea da gure asmoa.

Hurrengo taulan laburtzen dira lerro estrategiko honetan landuko ditugun jarduera ildoak, ekintzak eta atazak.

#	jarduera ildoak	ekintzak	atazak
LE2.1	Gipuzkoako gizartean euskararen erabilera indartzen laguntzea	Herritarren hizkuntza eskubideak zaintzea	6
		Esparru sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzea	8
		Gipuzkoako eragile nagusiekin elkarlanean, pertsonen hizkuntza aukerak berdintzeko proiektuak partekatzea	3



#	jarduera ildoak	ekintzak	atazak
LE2.2	Herri erakundeen arteko elkarlana bultzatzea hizkuntza politikaren esparruan	Udal<>ekin programa finkatu, indartu eta garatzea	6
		Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen hizkuntza politikaren esparruko proiektuak partekatu , adostu eta gauzatzea	6
LE2.3	Lankidetzeta publiko-pribatua sustatzea, hizkuntza berdintasunaren esparruan	Erakunde publikoen eta eragile sozialen arteko adostasuna bultzatzea	3
		Euskararen biziberritzearen aldeko sektore sozial eta ekonomikoaren partaidetza sustatzea, hizkuntza politika publikoan	5
LE2.4	Hizkuntza industriak eta toki hedabideak indartu eta garatzea	Euskararen sektore sozial eta ekonomikoaren garapena sustatzea eta aukera berriak irekitzea	4
		Euskarazko toki hedabideen finantzaketa eredu publiko adostua finkatu eta indartzea	6
		Dirulaguntza publikoen eredu berraztertu eta adostu Eusko Jaurlaritzarekin eta sektorearekin batera	4
		GFAk hedabideetan egiten duen publizitatea hizkuntza irizpideen arabera ere antolatzea	4
guztira	4	11	55



LE3. Berrikuntzara xedatutako baliabideak indartu

Globalizazioak bultzatzen dituen dinamiken eta tokian tokiko hizkuntza komunitateen izatearen garabide indarren arteko oreka berdintzeko giltza da berrikuntza. Beste era batera esanda: gaur egungo gizartearen eta ekonomiaren eragin indarren erdian, hizkuntza komunitate txikiok behartuta gaude berritzaile izatera, aukera berriak sortzera, gure etorkizunari irtenbide berriak bilatzera.

Etengabeko jarrera bat eskatzen digu horrek, gure ekintza eta jarduera orotan begiratu berritzailearekin jokatu beharra, gure indarguneetan oinarri hartuta aukera berriak identifikatu eta aztertu ahal izateko.

Baliabideak jartzea da Foru Aldundiaren eginkizuna, noski, erakunde akademikoen eta euskararen biziberritzearen aldeko sektore sozial eta ekonomikoaren iker-gaitasuna gauzatu dadin.

Hurrengo taulan laburtzen dira lerro estrategiko honetan landuko ditugun jarduera ildoak, ekintzak eta atazak.

#	jarduera ildoak	ekintzak	atazak
LE3.1	Hizkuntzaren egoerari buruzko ikerketa lerro berriak sustatzea	Hiztunen aktibazioa lantzeko eta indartzeko ekimenen gaineko ikerketa laguntzea	5
		Hiztunen arteko ulerpena errazteko eta bizkortzeko proiektuak lantzea	3
		Nerabe-gazteen esparruan euskararen erabilera sustatzeko ekimenak esperimintatu eta gauzatzea	7
LE3.2	Hizkuntza berdintasunaren arloko praktika aurreratuak sustatzea	Euskararen biziberritze sozialaren esparruko esperientzia arrakastatsuak partekatzeko bideak laguntzea	4
		Etorkizuna Eraikiz ekimenean hizkuntzari lotuta sortzen diren proiektuak sustatu eta jarraipena egiten laguntzea	4
		GFaren barruan eta erakunde publikoen artean hizkuntza harreman berritzaileak sustatu, landu eta ezartzea	9
guztira	2	6	32



7 – Jarraipena eta ebaluazioa

Hausnarketa estrategiko honek biltzen dituen jarduera ildo, ekintza eta atazen aurreratze eta betetze mailaren jarraipena egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa orokorraren jarraipen tresna erabiliko dugu (Midenet).

Egutegi generiko eta zikliko bat izango du jarraipen eta ebaluazio lanak, hiru mugarri hauen arabera:

- Adierazleen jarraipena eta neurketa egingo dugu hausnarketa estrategikoak hartzen dituen lau urteetako bakoitzaren amaieran.
- Balioespen kualitatibo bat egingo dugu, adierazleen neurketak emandako datuen argitan, baita ere urte bakoitzaren amaieran.
- Hausnarketa estrategikoak hartzen dituen lau urteen buruan, jarduera ildo, ekintza eta ataza guztien emaitzen ebaluazio eta balioespen orokorra egingo dugu, adierazleen neurketa baliatuta.

Jarraipen eta ebaluazioko hiru mugarri horietan sortzen diren dokumentuak Euskararen Foroan aurkeztuko ditugu, bertan biltzen diren eragileen iritzia eta kontrastea jasotzeko.